

1 PR-Bi 142 bideari ekingo diogu Lekeitioko autobus-geltokian, Larrotegi kalean hain zuzen, eta Atea kalerantz abiatuko gara. Gure eskuinean Mandaska iturria ikusiko dugu, eta gure aurrean, Portale Zaharreko Kristo Santuaren santutxoa edo Atea Portaleko santutxoa. Oinezkoen pasabidea gurutzatuko dugu eta ezkerretara joko dugu. Metro batzuk ibili eta Itxaropenaren iturrira helduko gara. Jarraian, Dendari kalearen hasieran, eskuinera doan bidexka meharra aurkituko dugu: hemendik abiatzen da ezkerretara estugunea, Erdi Aroko harresi baten horma-atala duena. Estugunean abiatuz bidegurutze batera helduko gara, Andre Maria Nahigabetuaren imajina duena. Han dago ere ekingo diogun PR-Bi 142ko bidea seinalatzen duen gezia.

2 Bidegurutzean eskuinera hartuko dugu, eta bide harriztatu batetik, Gurutze-bide zuinkatua duena, zelaigunera helduko gara, garai batean hiribilduko ur-biltegia izan zenera. Hantxe norabide-gezi bat dago, bi norabide seinalatzen dituena: Lumentza haitzuloa edo Lumentza mendia. Gu mendiaren gailurrerantz abiatuko gara, bidea hausteko aukera badugu ere: 5 minutu bakarrik behar izango ditugu Lumentza haitzuloaren inguruak bisitatzeko, haitzuloa jendearentzat itxita badago ere.

3 Ur-biltegitik joan eta bide nagusian segi dugu, artadia zeharkatuz eta Gurutze-bideari jarraituz, mendiaren tontorrean dauden hiru gurutzetara heldu arte. Joan den mendean, karlistaldietan, mendiaren gailurrari goiko aldea moztu zioten etsaiei jaurtigai astunak jaurtitzeko kanoiak jartzeko. Hori zela eta, zelaigunea aparta da Erdi Aroko Lekeitioko hiribildua ikusteko, bai eta Ispaster eta Mendexa alboko herriak eta Bizkaiko Golkoa ikusteko ere. Handik zer ikusten dugun jakiten laguntzeko informazio-mahaia jarri dute gailurrean.

4 Tontorretik bista ederrak ikusi ondoren, bide berean goitik behera abiatuko gara, eta inguratzen gaituen kantabriar artadiari begiratuiko diogu arretaz. Andre Maria Nahigabetuaren imajina dagoen bidegurutzean eskuinera hartuko dugu eta hilerrira jaitsiko gara eskaileretatik. Eskaileren bukaeran eskuinera hartuko dugu berriro, Andre Maria eliza ezkerretara utziko dugu eta Santa Elena etorbidean sartuko gara. Etorbidean barrena Isuntza hondartzaren gainean dagoen Uribarren parketik igaroko gara, eta izen bereko zubira helduko gara. Zubia eskuinaldetik zeharkatuko dugu, atzean zubiaren historia azaltzen duen taula utziko dugula. Zubiaren beste aldean eskuinera hartuko dugu behera eginda, Marierrota errota zaharreraino. Hemen, marea-errota horren historia eta funtzionamenduari berri emango digu taula batek.

5 Ibaian gora abiatuko gara, kontuan harturik bidexka-zati hau ez dela edonorentzat egokia. Trebatuenok, beraz, errotako informazio-taula atzean utzi eta zementuzko mendi-bidetik jarraituko dugu, gero, legarrezko pistatik, eta azkenik, ur-ponpa dagoen eraikinaren ondoko lokatzezko mendi-bidetik, ubidetik, etxe bateraino heldu arte. Etxean zurezko zubitxo zeharkatuko dugu eta hesiaren ertzetik ibiliz, altzifreraino abiatuko gara. Gero, bidean goitik behera, eskuinera hartuko dugu mendi-bide zabaletik.

Metro batzuk egingo ditugu eukaliptoen artean, eta bideen elkar-gunean behera egingo dugu Telleria baserriraino. Baserria ezkerretara utzi eta bidean segituko dugu; errektxoa zeharkatu eta haritzen artean ibiliko gara, paduraren ibaiertzean beti. Burdinesi bat zeharkatu eta itsasadarren urertzean dagoen zelaigune ederrera helduko gara, antzara-egunean gabarrak uzten direnera. Bideari ekingo diogu, bidexkan gora eginda; gero, goitik behera abiatuko gara eskuinera, eta eremu batera helduko gara. Han, abereentzako bi hesi zeharkatu eta Leagi zubira helduko gara. Zubia zeharkatuko dugu, eta 20 metro inguru errepide nagusitik ibili ondoren, behera egingo dugu eskuinera, lehenengo legarrezko bidean, eta, araztegiaren ertzetik jarraituko dugu bide asfaltatuan. Gero, errepide nagusira itzuliko gara, eta errepidean abiatuko gara Lekeitiaraino.

6 Itsasbeheran, Garraitz irlarantz abiatuko gara Marierrota marea-errotatik. Irlara heltzeko, zubia zeharkatuko dugu berriro, eta parkera heldu baino lehen, eskuinera hartuko dugu eta Isuntza kalean sartuko gara, hondartzaraino. Hondartzaren aurrean malekoa dago, itsasadarrak daramatzen jalkinak portuan sar ez daitezten eta itsasadarra bideratzeko eraiki zena. Malekoa itsasbeheran bakarrik ikus daiteke, eta itsasbeheran besterik ez dugu izango Garraitz irlara heltzeko aukera.

Gure ibilbidea bukatzeko, malekoa zeharkatuko dugu berriro, Isuntza hondartza zeharkatuko dugu, Independentsiaren plazaraino, eta plazan eskailera gora hartuko dugu, Udaletxearen ondoan, eta aurrera jarraituko dugu, Gamarra plaza txikiraino. Plaza honetan, Erdi Aroan eskulangileen kalea zen Dendari kalean abiatuz, Atea kalera helduko gara, autobus-geltokiraino.

Iraupena: Ordu eta erdi.
Luzera: 5000 m.
Malda: 120 m.



Zailtasuna: Tartekoa-handia (padurako bide-zatia)
Ibilbide-mota: naturaz gozatzeko, paisaiak ikusteko.
Bidea: Oinez

LEKU INTERESGARRIAK

HARRESIKO HORMATA

Lekeitioko hirigune zaharra harresi batek inguratzen zuen. 1334. urtean, Alfontso XI.a erregeak hiribildua harresi batek inguratzeko agindua eman zuen.

Egunoa, gaur ikus daitekeena, ilaratan jarritako harlanduz eraiki zuten XV. mendearen bukaeran antzinako harresiaren gainean. Hormek 1,70 m. eta 2 m. arteko lodiera dute. Harresiak dorre karratuak zituen zelatatzeko.





LUMENTZA HAITZULOA

70 metrotara dago, "Kakueta" izeneko inguruan, herritarrek "Garratxa" izena eman dioten lekuan.

Jose Miguel de Barandiaranek indusi zuen 1921ean.

Haitzuloan aurkitu diren hondarrak kultur espektroa oso ugaria da, Goi-Paleolitotik erromanizaziora hain zuzen.

Aurkitu diren hondarren artean aipatzekoak dira hezurrez egindako tresna apainduen bilduma eta altzarien arteko pieza batzuk.

PAISAIA KARSTIKOA ETA KANTABRIAR ARTADIA

• **Paisaia karstikoa:** urak kareharrietan egiten duen eraso kimikoaren emaitza da. Prozesu kimiko horren ondorioz, kareharria disolbatzen da eta ura barruan sartzen da, haitzuloak sortuz, Lumentza haitzuloan gertatu zen bezala. Artea du paisaia honek landaretza bereizgarri, bai eta zuhaitzak ere, esaterako, gurbitzia; zuhaixkak ere, esaterako, ereintza eta legeltxorra, eta aihen-belarrak ere, esaterako, endalaharra edo otzar basatia.



• **Kantabriar artadia:** mediterraneoko basoa, iraganekoa, Mediterraneoko itsasbaterreko antzeko klima nagusitzen dena. Sasoiak onak izan ez direnean, antzeko baldintzak dituzten giroetan kokatu dira, lehiakiderik izan ez dutenetan, esaterako, kareharrizko mendi-mazeletan, eguzkitsuetan, aldats pikoak dituztenetan, eta ia lurrik gabe, lur elkorretan, euri-ura azkar dabil eta.

LEAKO PADURA ETA MARIERROTA MAREA-ERROTA



• **Leako padura:** hemen geratzen da ur-lasterra, eta urak berekin daramatzan zatikirik txikienak ere jalkitzen dira hondoan. Itsasoko ura eta ur geza elkartzen dira hemen.


• **Marea-errota:** 1555ean eraiki zen lehorte bat zela eta. Ur-errotaren antzeko instalazioak zituen marea-errotak. Itsasaldiez baliatzen zen errotak, berriz, dike handia zuen, harri-hormak zituena, itsasgoran betetzen zena eta itsasbeheran ura pixkanaka-pixkanaka irteten zena, ehoketari ekiteko makineria abiaraziz. Joan den mendearen erdialdera arte ibili zen errota.

• **Leako ontziolak:** artisau-ontziolak, zurezko kroskodun itsasontziak eraiki eta konpontzekoak. Ontziolen egiturak XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran zaharberritu ziren, eta Erdi Aroko instalazioen kokaleku berean daude. Leako ontziolak Bizkaiko eta, beharbada, Kantauriko onenak dira, itsasontziak artisau-moduan eraikitzeke instalazioei dagokienez.

GARRAITZ IRLA

Karekizko harkaitza, itsas pinuez estalia.

Aspaldi "Garraitz" ("Garratz aitz") izena jarri bazioten ere, Aro Modernotik bertan kokatutako baselizatxoaren garrantzia zela eta, "San Nikolas irla" izena eman zioten herritarrek.



1500. urte inguruan baseliza bat egon zen, "Freilas Ermitañas"ek administratzen zuena. 1617. urte aldean, frantziskotar errekoletoen komentua eta "San Nikolas Barikoa" baseliza sortu zen irlan.




Lekeitioko badiaren eta ingurunearen edertasunak bisitaria txanditu egin du beti.

Honatz oso gutxi dakiten datua: austrohungariar inperioaren eroraldian, Urizarren Jauregian (desagertu egin dena), Zita Enperatrizaren Hotela egun dagoen tokian, austrohungariar gortea bizi izan zen erbestealdian hamarraldi inguru.

PR-Bi 142



LEKEITIO



IKUR KONBENTZIONALAK
SIGNOS CONVENCIONALES

Santiago bidea	Camino Santiago
Zubia	Puente
Tunela	Tunel
Iglesia	Iglesia
Ermita	Ermita
Albergue	Albergue
Hotel	Hotel
Nekazaluturismo	Agroturismo
Iturria	Fuente
Atsedun-gunea	Zona recreo
Kobazuloa	Cueva
Errota	Molino
Gasolindegia	Gasolinera
Pentsioa	Pensión
Kanpina	Camping
Landetxea	Casa Rural
Padura	Marisma
Zuhartzak, Basoa	Arbolado, Bosque
Hondartza	Playa
Kaia	Puerto

Argitaratzailea/Edita: Lea-Artibaiko Amankomunazgoa.
 Testuak/Textos: Lea-Artibaiko Amankomunazgoa
 Argazkiak/Fotografías: Kaloa a.s.p.
 Egilea/Realización: Kaloa a.s.p.
 Laguntzailea/Colabora: Lea-Artibaiko Mendinekazaritza Eikartea

PR-Bi 142